

### 3 milioi genoma afrikar

Giza genoma lehendabiziko aldiz sekuentziatu zenetik hogeitau urte bete direnean, sekuentziazio hark utzitako hutsune handietako bat bete nahi duen proiektua aurkeztu da: 3MAG. Hiru milioi genoma afrikar sekuentziazioa da proiektuaren helburua. Izan ere, erreferentziazko giza genoma egiteko erabili diren genoma guztien % 2 baino ez dira izan afrikarrenak.



ARG.: Pixabay.

Afrika giza sekuentziazioetik kanpo utzi izanak gabezia handiak eragin ditu, kontuan hartuta Afrika dela kontinente guztien artean aldakortasun genetiko handiena duena. Espero da proiektu berria berritan giza aniztasunaren adierazgarria den erreferentziazko giza genoma bat eraikitzeke abiapuntua izango dela, hogeitau urteren ondoren.

[Nature aldizkariko iritzi-artikulu batean](#), Hegoafrikako Cape Town Unibertsitateko ikertzaile Ambroise Wonkam-ek dio ekonomikoki aberatsak diren herrialdeek ez dutela jakin izan munduaren onerako izan zitezkeen gaixotasunen eta populazioen irizpideak Giza Genoma proiektuan txertatzen, eta genomikaren ezagutza eta aplikazioek mesede gutxi egin dietela Hego hemisferioko herrialdeei. ●

### Marrazoak eta arraiak % 70 gutxitu dira azken mende-erdian

Munduko marrazoen eta arraien populazioak % 70 murriztu dira 1970etik. Eta, ondorioz, elasmobranchio-espezieen hiru laurden desagertzeko arriskuan daude. Emaizta horiek eman ditu nazioarteko ikerketa-talde batek egindako azterketa zabal batek. [Nature aldizkarian argitaratu dute.](#)

Zehazki, 1970 eta 2018 bitartean, 31 espezieen bilakaera aztertu dute. Eta ondorioztatu dute 31 espezie horietatik 24 desagertzeko arriskuan daudela, eta haien arteko 3 galzori larrian daudela (IUCN Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundearen zerrendako kategoria larriena): *Sphyrna lewini*, *Sphyrna mokarran* eta *Carcharhinus longimanus* espezieak.

Espezie horietan eragin kaltegarria izan dezaketen hainbat faktore hartu dituzte kontuan, eta garbi ikusi dute gehiegizko arrantza dela arazo nagusia. Hala, ikertzaileek ohartarazi dute ezinbestekoa dela lehenbailehen neurriak hartzea, zehazki, arrantzatzeko mugak jartzea, populazioek onera egin dezaten. ●



*Sphyrna mokarran* marrazoa, galzori larrian dauden hiru espezieetako bat. ARG.: Albert Kok/CC BY-SA 4.0.